

Kitosanoa, jakiak estaltzeko material alternatiboa

JAKIAK BILTZEKO erabiltzen diren plastikozko ontzi eta estalkiak ingurumen-arazo larria dira. Gainezka ditugu ibaiak eta itsasoak, eta arrain askorengan ere erruz aurki ditzakegu halako materialak. Petroliotik eratorritako plastikoez 100 eta 400 urte bitarteko epea behar dute guztiz degradatzeko; eta nonahi daude, gure bizimoduaren funtsezko osagai bilakatu dira eta.

Alternatiba bilatzeko ikerketa ugari egiten da, horien artean Itsaso Leceta EHUko ingeniari kimikoak zuzendutakoa. Lecetak eta beraren lantaldeak kitosano izeneko materialarekin proba-saioak egin dituzte. Ikusi dutenez, harekin estalitako elikagaiek –ikerketarako azenarioak erabili dituzte, zehazki– luzeago gordetzen dituzte beren propietateak. Izan ere, kitosanoak mikrobioez babesten ditu. Eta biodegradagarria da, krustazeo azalez eginda baitago.

Bide luzea dago egiteko, halere. Laborategiko probetan emaitza onak lortu dira, baina Lecetak gogorazi du kitosanoaren ekoizpen masiboa urruneko helburua dela oraingoz. ■



EHU



2015. urteak zer ekarriko digun

HASI BERRI DEN URTEA oparoa izango da zientziarekin eta teknologiarekin zerikusia duten albisteei dagokienez. Hona hemen adi jarraituko ditugun zenbait gai:

Martxoan Fukushima istripuaren urteurrena gogoratuko dugu; halaber, zentral nuklearraren inguruko berri interesgarrienak ekarriko ditugu orrialde honetara.

Espazioari ere arreta eskainiko diogu. Aurtentzatez ere Plutoni begira jarriko gara, NASAren New Horizons zunda haren ingurura iritsiko baita. Gutxi gorabehera aldizkari hau zure eskuetara heltzeaz batera hasiko da

New Horizons planeta nanoaren irudiak hartzen.

Naturak eta medikuntzak etengabeko informazio iturria izaten jarraituko dute. Klima aldaketaren ondorioen berri izango dugu, batetik; bestetik, ama zelulen inguruko ikerketak berri onak emango dituelakoan nago.

Euskal Herrian, berriz, bi gai nagusi izango dira: EAEko ikerketaren eta berrikuntzaren dekretu berria –2020rako helburuak ezarriko dituen–, eta hondakinen kudeaketaren alorrean izango diren albistek. ■



NASA



New Horizons espazio-zunda Pluton ingurura iritsiko da aurtentzatez.

Depresio arrisku handiagoa pubertarora lehenago iritsitakoengan

Illinoiseko Unibertsitateko (AEB) Karen D. Rudolph psikologoak zuzendutako lantaldeak lau urteko ikerketa lana egin du 160 neraberekin. Behatu dutenez, pubertarora lehenago iristen direnek arrisku handiagoa dute depresioa izateko. Neskengan lehenago agertzen da arazoa mutilengan baino.

ttiki.com/240681
(Gaztelaniaz)

Telebistak, tabletek eta smartphoneek loaldia murrizten dute

Massachusettseko 2.048 ikasleekin egindako ikerketa batean, smartphoneak eta tabletak euren geletan ziztuzten ikasleek gainerakoek baino 21 minutu lo gutxiago egiten zuten gauero. Gelan telebista zutenei, berriz, hamazortzi minutu murrizten zitzaizkien loaldia.

ttiki.com/240688
(Frantsesez)

Landarez egindako hormak, zarata gutxitzeko egokiak

EHUren Meatzeen eta Herri Lanen Ingeniaritza Teknikoko Unibertsitate Eskolan ikerketa bat egin dute, landare-moduluz egindako hormak soina xurgatzeko egokiak ote diren aztertzeke. Emaitzak oso onak izan dira, baina momentuz eraikin berezietan baizik ezin daitezke erabili halakoak, landareak horma gisa erabiltzeko haztea zaila baita.

ttiki.com/240695
(Euskaraz)

Babeslea: **iametza Interaktiboa**

ideia batetik errealitatera



web garapenak



multimedia



aholkularitza



edukiak

iametza

interaktiboa

www.iametza.com

T.943 37 67 16